

HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA BERARIAZKO IKASTAROA	
MODALITA TEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	EUSKARA

## 2. HE: AHOZKO JARDUNEAN HOBETZEKO IKASTAROA

### INFORMAZIO OROKORRA

<b>DATAK</b>	Martxoak: 1,6,8,13,15,20,22 Apirilak: 10,12,17,19,24,26 Maiatzak: 3,8,10,15,17,22,24	<b>IKASGELA/ TOKIA</b>	30. gela, IVAP Eusko Jaurlaritzza Donostia-San Sebastian kalea,1 Vitoria-Gasteiz
<b>IRAUPENA</b>	40 ordu	<b>ORDUTEGIA</b>	8:00-10:00
<b>MATRIKULA EPEA</b>	Otsailaren 14ra arte	<b>ONIRITZI EPEA</b>	Otsailaren 22ra arte
<b>IKASLE KOPURUA</b>	12 gehienez ere	<b>HARTZAILEAK</b>	EAEko Herri Administrazioetako langileak. Derrigorrezkoa da 2. HE egiaztatuta izatea.
<b>IRAKASLEA ETA DISEINUA</b>	AEK		

### ZER LORTU NAHI DA

#### HELBURU OROKORRAK

Langileek hizkuntza ez erabiltzeagatik galdu duten ahozko jariora berreskuratzea, langileak motibatzea euskara lanean ahoz erabiltzeko eta euskara erabiltzeko beldurrak kentzen laguntzea.

#### HELBURU ZEHATZAK

- Laguntza eskaintzea hizkuntza zuzen eta egoki erabiltzeko eguneroko jardueran.
- Telefonoz zein aurrez aurre, harrera egin eta kontsultak bideratzeko gai izatea.
- Ahozko erregistroaren berezko ezaugarriez eta baliabideez jabetzea.
- Mintzamenen errepikatzen diren akatsak zuzentzea.
- Lan arloko hiztegia lantzea.

### PROGRAMA ETA EBALUAKETA

#### METODOLOGIA

Teoria eta praktika uztartuko dira ikastaroan zehar, nahiz eta alde praktikoak lehentasuna izango duen.

#### IKASTAROAREN EZAUGARRIAK

- Ahozko jariora lantzeko ikastaroak aurrez aurrekoak izango dira.
- Ikastaro horiek lanorduen barruan izango dira, baina ordu-kredituen sistematik kanpo egongo dira, oraingo behintzat.
- Ikastarootan ez da eduki berririk ikasiko (hori ohiko ikastaroetan egiten da).
- Ahozko jariora lantzeko ikastaroan bi osagai hartuko dira kontuan:  
Osagai espezifikoak: laneko egoera eta eginbehar arruntak.  
Osagai orokorra: hizkera informala.



HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA BERARIAZKO IKASTAROAK	
MODALITA TEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	EUSKARA

## 2. HE: AHOZKO JARDUNEAN HOBETZEKO IKASTAROA

### PROGRAMA

Ahoskera:

- Arauak azaldu
- Ahots gorako irakurraldiak (albiste laburrak/ipuina 3 irakurralditan

Telefonoz lanean

- Kunplimenduak
- Elkarrizketak informazioa eskatu/emateko
- Esaldirik erabilienak
- Euren lanarekin zerikusia duten eginkizunak betetzea
- Lexiko teknikoa egoki erabiltzeko estrategiak
- Lexikoa ezberdindu erregistroaren arabera

Egokitasuna

- Berdinen arteko erregistroa

Argitasuna

- Azalpen argiak emateko baliabideak
- Ahozko azalpena erraztu eta entzuleen arreta pizteko baliabideak

Zuzentasuna

- Ahozko jardunetan egindako errorearen gainean espresuki sortutako ariketak, edo emandako azalpenak

Jariotasuna:

- Landutako zenbait baliabidek bereziki eragiten diote hizkuntzaren jariotasunari, horiek erabiliz irabazten baitu ziurtasunean eta bizitasunean, eta horren ondorioz, jarioan.

### EBALUAKETA

Proba bat egongo da ikastaroaren amaieran eta gainditu egin behar da GAI kalifikazioa lortu ahal izateko.

### IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazio inkesta

### ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

%80ko bertaratzea eta aprobetxamendu proba gainditzea.

### PREZIOA

**329 €**

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.  
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.